



203/2016 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Arabako Osasun Mentaleko Sarearen zuzendari gerentearena; horren bidez zenbait eskumen eta sinatzea delegatzen du medikuntzako eta erizaintzako guardien arloan.

Kontuan izanda komenigarria dela zuzendari gerenteak zuzendaritza taldeko beste organo batzuen esku uztea Arabako Osasun Mentaleko Sareko zeregin eta jarduera batzuk, prozedurak arintzeko eta lan-kargak banatzeko asmotan, kudeaketa arinagoa eta parte-hartzaileagoa izatea helburu.

Eta kontuan izanda Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutuen 15 artikuluko 2. atalak ezartzen duenaren arabera zuzendaritzako kideek hartu ahal izango dituztela zuzendari gerenteak euren esku utzitako zeregin eta betekizunak,

EBATZI DUT

Lehena.- Medikuntzako guardien arloan dagozkidan zereginak Zuzendari Medikoaren esku uztea.

Bigarrena.- Erizaintzako guardien arloan dagozkidan zereginak Erizaintzako Zuzendariaren esku uztea.


Hirugarrena.- Eskuordetze honen arabera sinatzen diren ebazpen eta egintza guztietan, hala jasota geratu beharko da.

Laugarrena: Ebazpen honek baliogabetu egiten du Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritza Gerentziak urriaren 27an emandako 183/2016 Ebazpena (EHAA, 218 zk., 2016ko azaroaren 17koa).

Bosgarrena.- Ebazpen hau bertan aipatzen den egunetik aurrera egongo da indarrean.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Osakidetzako zuzendari nagusiari, Estatutu Sozialen 5.2 artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan adierazitakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 22an.



EGUZKINE DE MIGUEL AGUIRRE

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea